

BADA DENBORA

Bada denbora denboran atzera egitea utopia dela jabetu zenetik. Bada denbora berriro zeharo zoriontsu izango ez dela dakienetik. Eguneroko gauza txikietan omen dago zoriona, eta ez daki aspaldi gabe sentitzen duena txikia edo handia den, are zoriontsu egiten duela baieztatzeko nahikoa arrazoi ote den. Hobeto egiten duela lo bai, eta, oro har, aldarte hobean egoten dela ere bai, baina beharbada ez da nahikoa. Baliteke konparatzen ibiltzea, lehen eta orain, orain eta lehen. Zoriona edo ez, finean, on egiten dio; eta erabaki hori hartu zuenetik bizitzari ikusten dio beste zentzu bat, kolore bat. Beste noranzko bat.

Gaur ere berandu egin zaio azkenerako, baina nekatuta egonagatik ere, ez du hutsik egiten, eta gau izarratuaren abaroan abiatu da oinez. *Hau plazera*, pentsatu du, *honek derrigorrezkoa behar luke astean behin gutxienez*. Pausua gelditu eta lepoa tolestu du gorantz, hirurehun eta hirurogei graduko bira eginez, astiro-astiro, ortziak gaur eskaintzen duenari so. Begiak itxita ere izarrak ikusten jarraitzen du, inguruan dauden zuhaitzetako erretxinaren usain sarkorrek amets laburretik esnatu duten arte. Ezin hobea da sasoia. Soinean daramatzen txolek orpoaren kontra egiten diote talka, flap-flap-flap; txankleten hotsa haize finak zuhaitz negartietako hostoak astinduz sortutako melodiarekin uztartzen da. Ez da besterik entzuten.

Oinetakoekin ez du asmatu, bidea harri koskorrez josita dago, estropezu egin du eta harrietako batek ezkerreko oinaren behatz lodia mindu dio. Lurrean eseri eta hanka bularraren kontra jarri du, mindu berri duen oinaren behatza igurzten duen bitartean. Zauri txiki bat, odolik apenas. Kautxuzko zola duen txankleta besapean jarri eta hanka koxuka egin ditu geratzen zaizkion metroak. Atsedean hartzeko geldiunerik hartu gabe, badabil berandu bestela ere.

Txankleta madarikatuak! esan du bere baitan. Joan den udan, Bilboko Aste Nagusian, larruzko eskumuturrekoekin batera saltzen zituen afrikar bati erosi zizkion, beste pare batekin batera, biak hamabost euroan. Irribarre egin du, apalki, gogoratu da anaiarekin batera erosi zituela. Martin bere anaia gazteenaren ustetan halako oinetakoak hippy, abertzale definitu eta *progre* koktela osatzen zuten horiexek soilik erosten dituzte. Gero eta min handiagoa ematen dio behatzak, atzazala moretzen hasi zaio.

Gaur ere berandu egin zaio azkenerako. Eskolak ematen hasi denetik lanez gainezka dabil, lehenengo urteetako nerbioek eta ardurek itota. Haatik, nahiago du orain izerditu eta lasaixeago jardun datozen urteetan. Eskolak ematea -eta beroriek aurretiaz prestatzea- uste zuena baino nekezagoa da. Eta ez eskolak bakarrik, gurasoekin hitzorduak, eta ingeleseko klaseak, eta irakurleen txokoan ezagututako kideekin adostutako konpromisoak eta abar luze bat. Egunaren hogeita lau orduak ez dira nahikoa. Irakasle hasi berria izateak sorrarazten dion ezinegonari Enararekin etengabeko liskarrak gehitzen zaizkio gainera; *betikoa naizela, Galder!* errepikatzen badio ere, ez dio sinesten. Enara ere buru-belarri ibiltzen da bere zereginetan, goizean hasita gauera arte burbuila batean sartu, eta inguruan duen beste ezeri ez dio erreparatzen. Bekoki astuna jarrita egoten da gehienetan, zer edo zeren gainean idazteko inspirazioa noiz etorriko. Zutabegintzan hasi zenean Galder ere poztu zen, neskalagunaren aspaldiko ilusioa zelako, baina “handiegi” etorri ote ez zaion galdetzen dio askotan bere buruari. Eta hori etxean dagoenean. Sarri udal liburutegian ematen ditu egun osoak, *tuperra* eramaten du bazkaltzeko, eta goizetan baino ez du ikusten, *agur laztana, banoa* batekin agurtu eta atea danbateko batez itxita alde egiten du. Eguneroko gauza txikietan omen dago zoriona, bere etxean ez bederen.

Hanka koxuka baina heldu da, eta hantxe eseri da, betiko lekuan. Haizea baretu eta txankleta-zolak isildu dira, ordenagailuko teklena da gaueko isilunea apurtzen duen hots bakarra. Idazten hasi zenean baino pazientzia handiagoa dauka orain. Behin irakurri zuen idazle trebeenek ere ez dutela beti etorri bera izaten literatura sortzerakoan. Horregatik, onena egunero saiatzea dela. Eta berak ere halaxe egiten du, berandu baina seguru. Gauero idaztea ohitura duenetik ez daki nagusiki zein sentimenduk bultzatzen duen ordenagailuko teklak apurtu beharrean zapaltzera, jada ez daki zein sentipenez bataiatzen duen bere hitzetako bakoitza. Baliteke tristura izatea, edo amorrua, edo mendeku-gosea.

Idazten hasi denetik ordu erdira zigarro paketea atera eta hiru zupada emanda desloratu du geratzen zaion azkenaurreko zigarreta. Ez du asko erretzen, hiru egunean, hiru, baina hirurak beharrezkoak: armosutan, bazkalosteko kafearekin eta oraingoa, *eguneko plazer txikiak* direla esaten dio Enarari; neskak, erretxin, errieta egiten dioenean, bere burua desenkusatu nahiaz. Esperotakoa baino dezente gehiago idatzi duela konturatu da begirada pantailaren aurrera bueltatu duenean. Zigarroaren ostean ere apurtxo batez jarraitu du. Idazten duen bitartean ahoz gora hitz egiten du, ez altuegi. Edo, hobeto

esanda, hitz egiten duen bitartean idazten du. Hantxe esandakoak ezerezean geratzea nahi ez, eta izkiriatzeko beharra igarri du aspaldian, sekula irakurriko ez duen anaiarentzat hitz egiten, idazten badu ere:

Utz iezadazu negar egiten, ondo egiten dit. Maiz irakurri izan dut hirurogei egun behar direla ohitura berri bat hartzeko, behin egun kopuru hori bete eta gero, zailagoa omen dela hasi berri dugun errutinatik irtetea, amore ematea, nonbait (...)

Utz iezadazu negar egiten (...)

Gaurkoz nahikoa idatzi du. Ordenagailua amatatu, bizkar-zorroan gorde eta bueltako bideari ekin dio. Arrosa gorri bat dago lurrean. Joaneko bidean harri koskorrak zauritutako behatza laztantzeko eseri denean eroriko zitzaion lora sortatik. Lore bakartia hartu eta hantxe utzi du, eguneko zoriona topatzen duen idaztokian, eskuarekin goxotasunez ferekatu duen hilerriko marmol hotzaren gainean, eta *bihar ere hemen izango nauzu, Martintxo* esanez etxerako bidea hartu du.